

DIRU ITURRIAK

Gure zerbitzutik eskuratuko dugun diru-iturri nagusia berezko sukaldaritza klaseetatik eskuratuko dugu. Bezeroek, astero etorri nahi dutenek, asteroko diru kantitate bat ordaindu beharko dute. Halere, asteburuetan klase bereziak egingo ditugunez (beste kulturetako janariak, sukaldaritza lehiaketak...), horietara soilik joan nahi duen jendeak asteko kuota ordaindu beharrean, klase batekoa soilik ordaindu ahal izango du (klase berezi eta bakar horiek 40€ balioko dute).

Asteko kuota bat ezarriko da, eta horren arabera, ordaintzen duenak klase kopuru batean parte hartu ahal izango du. Gauzak horrela, 90€ inguruko kuota ordaindu beharko da. Oraingoz, uste dugu, gastuak zeintzuk diren jakin gabe, eta bestelako klaseen prezioak jakinda, guk erabakitakoa nahiko gerturatzen dela.

Horrez gain, soberan dagoen janaria saldu egingo dugu, eramateko prestatuz (take away). Hori jaso ahal izateko ere modu bat ahalbidetuko dugu gure lokalean, eta horrekin batera, zenbait mahai jarriko ditugu zerbait edan nahi duen edonorentzat (janariarekin batera, edari batzuk salduko ditugu) eta eramateko janaria erosi eta jan nahi duen jendearentzat. Eramateko janariaren prezioa zortzi euro eta hamabi euro bitartekoa izango da.

Asteko bost egunetan klaseak normaltasunez egingo dira, kuota ordaintzen dutenak klasetara joango dira. Larunbatetan, klase bereziak egingo dira, hau da, plater bereziak egiten erakutsiko da eta hartara joan ahal izateko asteko kuota ordaintzeaz gain klase hori ordaindu egin beharko da. Eta igandetan lokala libre egongo den horretan, lokala alokatu egingo dugu.

Gainera, hasieran bezero gutxi izango ditugu eta jende gehiago gerturatzeko eskaintza erakargarriagoak egingo ditugu (beherapenen bat...), eta ondoren, behin ezarrita gaudela, noizbehinkako eskaintzak egingo ditugu.

Halere, jakinaren gainean gaude enpresa berri bat egitean, hasieran, ez direla diru-iturriak handiak izaten, eta martxan jartzea zaila izaten dela. Hori dela eta, hasieran mozkina positiboa ez dela izango badakigu, eta horri aurre egiteko prest gaude. Defizitari aurre egiteko bestelako dirulaguntza edo prestamuak eskatu beharko ditugu, behintzat, hasiera ondo kudeatzeko. Hori horrela dakigu gure inguruan autonomo asko daudelako eta beraien esperientziatik ikusi eta esan digute hasieran ekitea zaila dela.